LEHEN MAILAKO ASISTENTZIAREN ETA OSPITALEAREN ARTEKO HARREMANA

LOURDES UNZUETA
(Familia-Medikua.
Deustuko Osasun Zentroa)

Lehen Mailako Asistentzian lan egiten dudanez, neure ikuspuntua erabiliko dut gure mailaren eta ospitalearen arteko harremana zer-nolakoa den azaltzerakoan.

Hasteko esan behar harremana ez dela ez ona ez txarra, ez dago apenas harremanik eta. Kate bereko katebegi bananduak garela esan genezake. Harremanik ezean, mediku edo zentro bakoitza ahal duena egiten saiatzen da, baina ahaleginak ez du sarritan eraginkortasunik sanitario guztientzako ezta gaixo guztientzako ere.

Erakunde bakoitzean desberdintasunak egoteaz gainera (azpiegiturak, lan egiteko erak, etab.), egon badaude kontraesanak edo gure artean, batez ere formazioari dagokionez, gerotxoago azalduko dudanez.

Nik neuk ere ez dakit ondoren esango dudana gure harreman-motaren zioa ala ondorioa den, baina, laburtzeko, hiru puntu aipatu nahi nituzke:

1. Medikuaren formazioa. Non eta nork emana.
2. Lan egiteko era.
3. Gaixoari dagokion informazioa.

1. Medikuaren formazioa

Gaur egun Lehen Mailako Asistentzian (LMAn) diharduten mediku gehienek, bai medikuntza orokorrean zein espezialitateetan, Ospitalean ikasi eta hartu dute euren espezializazioa urtebete batzuen ondoren. Ospitaleko formazioa amaituta behin-betiko etena dator, bakoitzak bere bideari ekin behar dio baina, nola edo hala, Ospitalea gelditzen da formazio-iturri bezala. Honen ondorioz, eta hauxe da beste kontraesana edo, ospitalera jotzen dugu formazio bila (zerbitzuetako errotazioak, gaurkotzeko ikastaroak edo praktikak), edo ospitaletako espezialistak datozkigu zentroetara ikastaroak eta hitzaldiak

ematera. (Eta esan beharra dago baita azken hau gehienetan zentroetako pelmadari edo laborategi farmazeutikoen "bitartekotzari" esker jazotzen dela eta ez formazio-plangintza bati esker.

Esandakoa esanda, ez du esan nahi formazio horren guztiz kontrakoa naizenik, azken batean hori da orain arte izan duguna, ospitaleak izan dira guretzat ere erreferentzi puntua. Etorkizunari begira, baina, geure buruari beste formazio-lekurik ez ote dagoen galdetzeko ordua da. Beharrezko deritzot oreka bat lortzea LMAren eta Ospitalearen artean. Ikusiko ote dugu inoiz ospitaleko medikua lehen mailako zentroetan errotatzen?

2. Lan egiteko era

Pertsonalari dagokionez, nire ustez, eta gauzak asko aldatu ez badira behintzat, ospitalean hierarkizatuagoa dago. LMAn ostera ez horrenbeste, "inorenak" ez diren funtzio gehiago daude, funtzio-gainkarga gehiago.

Gaixoari dagokionez, ospitalea epe laburrerako tratamenduetarako, hil ala biziko egoeretarako, diagnostikobideen erabilpenerako lekua da: gehienetan epe laburrerako egonaldiak eta beraz epe laburrerako harremana. LMAn ostera harremanik gehienak epe luzerako dira, gure kasuan 14 urtetik hasi eta zahartzarora bitartean, bere alde on eta txar guztiekin. Ospitaletako kanpo-kontsultak, antzerako zerbait izan arren, ez dira lehen mailako zentroetako kontsultak.

Gaixoaren familia edo ingurukoak ez dira kontuan hartzen behar beste ospitalean, sarritan ez zaie gaixotasunari edo tratamenduari buruzko argibiderik ematen eta, larriena batzuetan, ebaketak edo ultzerak daudenean, ez zaie etxean nola zaindu behar dituzten erakusten ere. LMAn familia bere osotasunean ikusten da eta gaixo batzuen etxea norberarena bezain ezaguna da.

3. Gaixoari dagokion informazioa

Izenburua laburtzearren informazioa erabili dut, baina hemen diagnostikoa, tratamendua, informazioa, erantzukizuna zelan erabiltzen edo banatzen den aipatu gura nuke.

Harremanik ezaren ondoriorik txarrenetakoa bai Ospitalea zein LMA azken errekurtso bezala erabiltzearena da, "gorpu bat" norbere gainetik kentzeko: terminalak, bakarrik bizi direnak, "arazo sozial" direnak, diagnostikatzeko edo tratatzeko gaixo "zailak". Guk denok esan dugu inoiz, ospitalera joan eta han ikusiko zaituzte eta denetik egingo dizute, daukazun arazo hori oheburuko medikuari kontatu behar diozu eta ez niri, berak eskatu behar dizu analisi hau edo bestea.

Aurreko guzti hau, gainera, gehiena ahoz esanda, gutxiena idatzita, ospitaleko medikuaren, oheburuko medikuaren eta gaixoaren arteko errezeloak gehituz.

LMAren eta Ospitalearen arteko harremana finkatzea eta hobetzea beharrezkoa da guztion onerako jokatu nahi badugu behintzat. Ez da erraza izango urteetako ohituraren pisua gainean daukagulako eta Osasun-politika bera ere sarritan bata bestearen kontrako borroka dirudielako. Nire ustez, baina, aipatu ditudan arazoak konpontzea hasiera on bat izango litzateke.